

HEGOALDEKO MENDIAK

ARABA

A 38

Arabako hegoaldeko mendilerroak



Kantabria–Toloñoko mendilerroak Arabako Errioxa eta mendia banatzen ditu, Arabako ekialdean Kodezeko mendilerroak jarraitzen du eta, horren iparraldean, Lokizeko Santiago mendilerroa garatzen da. Mendi–kate garrantzitsu hori iparraldeko eta ipar–mendebaldeko haizeek aurkitzen duten azken oztopo orografikoa da, hezetasuna neurri handi batean galdu ondoren, klima guztiz mediterranea duen Arabako Errioxara iritsi arte.

Bi isurialdeen arteko desberdintasun klimatikoak kontraste handiak eragiten ditu landaredian, paisaian eta faunan, eta horrek aberastasun handia ekartzen dio inguru guztiari. Iparraldeko isurialdean pagoen eta ezpelen basoak nagusitzen dira, basurde, eta putre eta arrano beltz dotoreari aterpea eskaintzen. Hegoaldeko isurialdean, berriz, mediterraneoko sasía eta artadia eperraren, untxiaren eta era askotako hegazti–faunaren bizitoki dira.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• HBGB // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko geografia: lurraldeen mugak eta eskualdeen mugak. Eskualde naturalak.
- Klimatologia: hesi bioklimatikoa ("Föhn efektua").
- Paisaiaren interpretazioa: iparraldeko eremuaren (basoak, soro landuak, etab.) eta hegoaldeko eremuaren (mahastiak) arteko paisaia–kontrastea. Altuera–graduazioaren arabeko laborantzen mugak.
- Mendilerroko basoak: pagadiak, artadia eta erkameztia. Espezieen identifikazioa.
- Mendilerroak harrapariak suspertu eta hedatzeko gune gisa.
- Ikaztegien ibilbidea: zuraren ustiapen tradizionala.
- Antzinako lanbide bat: Arabako mendietako emakume ikazkinak.
- Arabako mendietako Erdi Aroko herriak: Peñacerrada–Urizaharra, Lagran, Bernedo.